

ENKARTERRI

BURDINATIK LARREETARA BIZIKLETAZ

Gure Bizkaia maitearen mendebaldean kokatuta, Enkarterri oraindik lurralde ezezaguna da askorentzat. Hori horrela izan arren, aspaldi garrantzi handiko lurraldea izan zen, burdin meatzeen ustiapenarekin eta abeltzain kopuru handiarekin lotura zuzena izan zuelarik. Enkarterriko ingurune hauek guztiak ezagutzeko asmoz bidaiatu dezagun txirringulaz, meatzetatik baserrietara eta burdin guneeetatik larreetara.



TESTU ETA ARGAZKIAK



David Cascan Porben
(Barakaldo, 1980)

Ekonomialaria eta natura zalea. Kirola da naturarekin harremanetan egoteko aitzakia, oinez, txirringulaz edota piraguz. Trans Euskal Herria egitasmoaren partaidea, baita Egizu txirringula taldekoa ere. Urtero alportxeekin txirringulaz bidaiatzea du gustuko eta besteak beste GR99 Ebro, GR 113 Tajo, Done Jakue bideak, Kantauriko kosta, Cicloextremaña, Eslovenia eta hainbat zeharkaldietan ibilia da.

Meatzaritzaren museo berriaren sarrera eta inguruko aire zabaleko erakusketa elementuak

BURDIN ORBAINAK

Bilbo, Bizkaiko eta Euskal Herriko historia ezin da ulertu Grumerango mendietako burdin mineralik gabe. Erromatarren garaitik ezaguna, Trianoko mendietara iraultza ez zen XIX mendera arte heldu. Baseritik meatzegietara jauzi egin eta dena suntsitu zuten, "ilargi-paisaia" bihurturik. Egun, biziberritzen ari garen inguruaz ezagutzera goaz, aisiarako eremu bihurtu baita.


📍 **0,0 km.** Gallarta (Abanto-Zierbena udala). Meatzaritzaren museotik abiatuko gara. Industriadun zeharkatuko dugu maldan gora

errepidetik, Kontxa 2 meategia eskuinean dugu. Orain dela mende erdia Gallarta auzoa han zegoen, baina meatzaritzaren beharrek herria mugitu zuten. Aire zabaleko Bizkaiko burdin ustiatze gune handiena izan zena 1993an itxi zuten. Egun, ondare babestua da.

Ezkerrera, Ortuella herria eta bere harrobiak. Goraino heldu garelara, Bizkaiko Txintxor Berziklategia ikusiko dugu behean eta Orconera meatzari auzoa. Ezin imajinatu azken mendeetan bailara honetan egon zen mugimendua eta zer mailatan itxuraldatu zuten inguruak. Ezkerrera joko dugu, Orconerako

bidegorria erabiltzeko, lehen Franco-Belga konpainiak Barakaldora arte zeukan burdin trenbidearen bidez.

📍 **3,3 km.** Bidegorriaren bigarren tунela igarotzean, hau laga eta ezkerrera joko dugu, errepide aldera, gorantz. Trapagaran eta Larreineta auzoa lotzen duen funikularra ikus dezakegu. 100 metro ibili eta bihurtu gunean, ezkerrean agertzen zaigun lurrezko pistatik ekingo diogu. Laster, Kanadar pasabidea igaro eta eskumako pista zabaletik jarraituko dugu, beti maldan gora, erreka-toa orain ubidea lehen lagun dugula, burdin



garbitegira heldu arte. Asfaltora itzulirik aisia gunera batera ailegatu eta gorantz, errepidera arte.

5,7 km. Larreinetan (Trapagaran) auzora helduko gara, errepide nagusian, funikularreko geltokiaren ondoan. Igoeran zehar eta goitik ikuspegi itzelak: Bilboko itsasadarra, Kantauri itsasoa edo Uribe. Zugaztieta auzorantz abiatuko gara errepidean gora, 100 m eta gero, jada bistan dugula, bihurtugunean bertan ezkerrean agertuko zaigun gorako errepidetik segi, Parkotza/Barrionuevo meatzari auzorantz. Zeharkatu eta aurrera joko dugu ezkerreko bidetik eta kanadar pasabidea igaro ondoren, errepidea laster porlana bihurtu eta goraka zuzentzen da.

7,4 km. Aldapan gora goazela goi tetsioko antena bat ikusi eta ezkerretik doan lurrezko pista hartuko dugu. Ia etenik gabe altuera berean, Argalarrioko (Barakaldo) pinudira helduko gara, zabalgunera eta atsedengunera. Bilbo Handia, Jata, Sollube, Ganekogorta, Anboto eta Gorobel mendizerrak ikusgai. Han, berriz, errepideari lotuko gatzazkio, gora, Mendibil mendiko komunikazio antenaraino heldu arte.

9,4 km. Han, eskuinean, belardian lurrezko bidea antzematen da, eta hortik joango gara. Merezki du han bertan dagoen muinora igotzeak, bertan baitago antzinako mea-zaina arrakala erraldoia lurrean. Aurrera jarraituko dugu eta albo batean Zugaztieta (La Arbole-da) eta bere lakuak ikusgai, bestean Grumeran katea, Mendibileko magaletan meatzeak, baita Oioloako urtegia beheko haranean (Bizkaiko Labe Garaietako). Gora eta behera harriz beteriko lurrezko pista honetatik, burdin kolorekoa, harik eta errepidera heldu arte. Hortik jarraituko dugu eta etxe multzo batera heltzean zuzen jarraituko dugu, beherantz etengabe eta martxa bizi-bizian, Zugaztietaraino.

12,0 km. Aldapa amaitzerakoan, birziklatzeko ontzien eta bus geltokiaren artean, egurrezko hesian pasabidea dago eta hortik jaitsiko gara ur putzuen bila. Behean, ezkerrean abiatuko gara bidezidorretik eskulturak dituen zabalgunera batera heldu arte. Orain dugu momentua putzuen artean ibiltzeko eta ingurua ezagutzeko: Ostion, Blondis, Parkotxa, Zuloko... bere garaian meategiak edo garbitegiak, gerora urez beteriko aisia gunerak.

12,2 km. Eskulturen zabalgunetik errepide nagusi azpitik dagoen tunelera joango gara. Igarotzerakoan, asfaltozko ezkerreko bidetik jarraituko dugu Burtzako/Matamoros

atsedengunera arte. Han burdin langa gurutzatu eta lurrezko pistatik behera joko dugu, meategietako mineral garbitegi ohiaren az-tarnen bila. Garbitegia gurutzatu eta berehala beherantz garamatza bideak, baina erne, hurrengo bihurtugune itxian (13,7 km) ezkerretik hartuko dugu errekatxo gurutzatuz eta goraka etengabe errepide nagusira heldu arte. Trianoko seinaleari jarraituz, errepidetik metro batzuk aurrera egin eta ezkerrean desbideratuz auzunera iritsiko gara.

15,5 km. Meatzari auzoa zeharkatu, asfaltora porlana bihurtuko da eta zuzen egingo dugu aurrera. Aldapa pikoago denean, eskuineko bidea ahaztu, eta pitin bat gorago, gogorragoa denean ezkerretik joango gara. Porlanezko bide honetatik 300 metro egin, eta ezkerreko mendi-bidera pasako gara. Bertatik jarraituko dugu Trianoko meategietako instalazioetan atondu zuten golf zelaia inguratu arte.

18,1 km. Errepidera heltzerakoan Zugaztieta bisitatzera joan gaitezke eskuinetik. Bere egurrezko etxeak, jatetxeak eta historiaz jabetuko gara. Hemen edo gure hurrengo geltokian, Peñas Negraseko ingurumen interpretazio zentroan hamaiketako har dezakegu. Herriko plaza gorantz zeharkatuta Peñas Negraseko seinalea ikusiko dugu. Porlanezko bidetik abiatuko gara, gerora asfaltatutako bidea, Ekoetxera heldu arte.

Argalarrio mendiko magaletatik Bilbo Handia eta Bizkaiko ikuspegiak





El Hundimiento deritzon lekua, lurra meatzeak irentsi zuenekoia eta inguruko karsta

📍 **20,8 km.** Bisita egin ostean, errepidea hartuko dugu gorantz berriro eta 200 metro igarota bihurgunean ezkerrera agertuko zaigun lurrezko bidetik hasiko gara etengabe gorantz bidetik atera barik. Hasieran, Peñas Negras zentroko seinaleztatuko ibilbide arrosa eta lilarekin batera egingo dugu aurrera. Urjauzi txikia eta iturria atzean utzi eta gorantz, La Breña mendi lepora heldu arte.

📍 **22,7 km.** Bidebanatzean, aurrera, gorantz, bihurgunerantz, Galdames herrirako noranzkoan (PR seinalea) marka arrosak lagunduta. Goian, hurrengo lepoan, seinale arrosak eta GR-koak ahaztu eta zuzen, maldan beheara hasiko gara segituan marka lilek berriz lagunduta.

📍 **25,0 km.** Jaitsierak atsedean ematean, bigurutzeta batera helduko gara. Burdin-meak kareharrizko arrakaitan ikusiko ditugu inguruan. Beherantz eta ezkerrera jo beharrean, La Elvira auzora (eliza baten aztarnak behatuko ditugu), guk aurrera jarraituko dugu, lurrezko pistatik. Bidea zailduko zaigu eta txirringulatik jaitsi egin beharko dugu sakonetik irteteko. Elvira meategiaren lursailetan gaude, El Hundimiento delako eremuan.

📍 **25,7 km.** Laster belardi batera ailegatuko gara. Dakargun noranzko beran pista bilatu eta berriz hartuko dugu (seinale lilak) Eskatxabel auzora (El Saúco) hurbildu ahal izateko. Adi, marka lilek adar batzuetara eraman gai-

tzakete: belardian gaudela bidezidor batetik atzera, Eskatxabelerako lurrezko pista hartu eta metro batzuk aurrerago, Madalena Kobazulora. Guk ez diegu jaramonik egingo eta lurrezko bide zabal eta argi bakarretik aurrera jarraituko dugu.

📍 **26,5 km.** El Saúco meatzari-kooperati-bako utzitako egoitza ikusi eta gero, aldapatxoa jaitsi eta gorantz egingo dugu. Iturria gaudituta eta bidetik leporaino helduko gara. Goian, gurutzagunean, ezkerretik joango gara (mendebalderantz) orain markak laranja kolorekoak direlarik. Altzifredia zeharkatuko dugu eta eskuinetik joango gara maldan beheara.

📍 **28,2 km.** Bidegurutzeta batera helduko gara landa aurrean dugula, iturri bat eskuinean laga ondoren. Ezkerretik ateratzen den pista hartuko dugu seinaleztatuko bide laranja atzean utzita. Hemendik etengabe jaitsiko gara, bi bidebanatzean desbideratu gabe, zuzen, tunel baten ondoren Burdin Mendi Bide Berdearekin topo egin arte. La Aceña industria gunera iritsiko gara, Galdamesko Udalerria (34,0 km). Hau zeharkatu eta jatetxea dago, jarrarian Atxuriaga parkea, kareharrizko Pico La Cruz ederra atzean dugula. Bisitatzeak merezi du. Lehen meatzeak zirenak orain atsedengune bihurtu dira.

📍 **34,0 km.** Zatiarik menditsuena jada atzean utzita bide berdea hartuko dugu Gallartara itzultzeko. Aipatutako tunela gurutzatuz abiatuko gara. Bide berde hau Artzentales, Sopuerta, Galdames, Abanto-Zierbena eta Muskizko udalerrietatik igarotzen da eta hiru trenbide ohi elkartuta sortu zen. Gu Galdames-Sestao trenbide zaharretik ibiliko gara, konpainia ingeles batek eraiki zuen La Aceña-ko meategi ustiapenak Sestaoko La Benedictako kaiekin lotzeko. Triano mendien (Biotopo babestua) eta Barbadun ibai-arroaren (Natura 2000 Sarea) arteko lurretatik bidea egitera goaz, tunelez-tunel eta hainbat meatze hondarrak ikusiz. Tartean, El Pobaleko burdinola bisitatu dezakegu, seinalez adierazita baitago.

📍 **41,0 km.** Muskizko Borja auzora heltzean hartxintzar bidea amaitu eta errepidea gurutzatuko dugu. Hemendik aurrera bidegorria dugu eta oinezkoekin partekatuko dugu. Erne ibili behar, bidea auzo errepidea ere badelako. Hurrengo tunelean Abanto-Zierbenako udalean sartuko gara. Pozo Gerente eta Arena burdin hondartza gorrixkaren Petronor findegaren (Muskiz/Abanto-Zierbana) gaineko ikuspegiarekin aurrera eginez. La Balastera auzora heldu eta harrobiaren artean igaroko gara, ezker-eskuin, bidea estu-estu.

📍 **46,0 km.** Bidegurutzeta batera helduko gara. Bidegorriak ezkerretik darrai, baina gu


Kontxa 2 aire zabaleko meategia. Gallarta auzoa lehen zegoen orubean







Cueto auzotik igaro ondorengo ikuspegiak (Jorrios mendia)



eskuinetik aldapan gora joango gara errepi-
detik Kontxa 2 meategia ikusi arte. Handik
beherantz jo eta bira osatuko dugu museoan,
txirrundularientzat doan duen bisitarekin
(47,0 km).

HARAN GALDUAK

Karrantza eta Turtziozko haranak harribitxi ezezagunak dira Euskal Herrian. Muga geografiko ia gaindiezin hauek Gaztela eta Kantabriatik banatzen dute: Ordunteko mendizerra babestua eta Armañongo Parke Naturala. Bere bihotzean, elizak, zezen plazak, Indianoen arkitektura, larre zabalak, basoak eta kareharriek



gordetako harpeak: Venta Laperra eta Pozalagua, bere estalaktita eszentrikoekin.

📍 **0,0 km.** Turtziozko zezen plazan hasiko gara Aguera ibaia zeharkatzen duen zubiaren bila. Bidean, eraikinen arkitekturak harrিতու gaitu. Cueto auzorantz abiatuko gara auzo errepidetik.

📍 **1,9 km.** Cuetora heltzean Parke Naturaleko informazioa ageria da. Gu Armañonerantz (GR 123). Auzunea zeharkatu eta beti maldan gora goazela asfaltoa porlana bihurtuko zaigu.

📍 **3,0 km.** Bidegurutzean, GR eta PRko markak ahaztu eta ezkerreko lurrezko bidetik jarraituko dugu. Eukalipto basoa eta pinudia

zeharkatuko ditugu Turtzioz eta Villaverde udalak ikusgai ditugularik. Kolitza deiadar mendia ere, urrutian bere baselizarekin.

📍 **5,8 km.** Gurutzagunean gorantz ekingo diogu bihurgune itxia eskuinetik hartuta. Pixkanaka pixkana, sigi-sagan eta pista zabaletik desbideratu gabe lepora helduko gara.

📍 **8,8 km.** Lepotik, Karrantza osoa parez-pare: harana, Ordunteko mendizerra, Raneroko haitzak, Mazo, Moro... Ason Kantabrian edo Palentziako mendialdea. Atzean, aldiz, Jorrios eta Armañon mendiak. Seinaleei so egin eta eskuineko bidetik gora jarraituko dugu Armañonerantz edo La Lama trikuharriarantz (PR), beti Ranero/Pozalaguarako noranzkoan. Poliki gorantz, Sopenako artadia behean dugula, "La Lama"ra heldu eta bidetik aurrera jarraitu.

📍 **11,2 km.** Beste lepo batera heldu eta bidegurutzean, aurrera, GR 123ari jarraiki, Ranerorantz. Kantauri itsasoa ere ikusgai. Erne, laster pista barnealderantz doa eta gu aldiz, ezkerretik, (11,6 km) belarditik, gandorretik gertu. Bidearen aztarna agertuko zaigu eta berriz gorantz jo. GRko markekin ez dago galtzerik. Trikuharriak ikusteko aukera dugu tarte honetan. Hesiak lagun aurrera egin eta laster maldan behera hasiko gara lurrezko bide zatar batetik.

📍 **13,6 km.** Jaitsierak atsedena emateko zelaia batera ailegatu eta han pista argia ikusiko dugu, ezkerretik beherantz doana. Une honetan GR 123a ahaztuko dugu, eta Santecilla auzorantz abiatuko gara. Bidebanatze-za heltzerakoan, aurrera eskuinetik segi. Bueltan, bidegurutze honetara berriz itzuliko gara.

📍 **16,0 km.** Santecillara heltzerakoan, lehengo etxeak ikusi eta bihurgune itxi bat atzean utziko dugu, hurrengo bihurgunean, ezkererantz itxi-itxia berriz ere, eskuinetik ateratzen den bidetik joan beharko dugu Ranero auzoraino.

📍 **17,7 km.** Ranero auzoa. Aukera paregabea Pozalagua kobazulora hurbiltzeko. Seinaleei jarraituta, errepidez hurbilduko gara leku zoragarri honetara. Han parketxea, auditoriuma eta begiratoki itzela. Joan-etorria egingo dugu bide beretik Santecillara, handik gora eta berriz lehengo bidegurutze helduko gara (23,7 km). Orain, berriz, gora jo beharrean eskuineko bidetik abiatuko gara. Laster Sopenako artadia ikusi eta bisita dezakegu. Bidetik jarraituko dugu.

📍 **28,5 km.** Gurutzagunean, eskuinetik, porlanezko bidetik, "PR-BI 121 (Suceso)" noranzkoan, Paules auzoraino, beherantz etengabe. Desbideraketak ahaztuta, etxeetara heltzean, bidebanatzean aurrera eta Paules zeharkatuko dugu (eskuinetik eta atzerantz, Karpin Zoologikora joan gaitezke).

📍 **30,3 km.** Bidegurutzean errepidera joan beharrean, ezkerrean "Paules" lauzazko erro-tulua duen etxe baten ondotik igaroko gara, ezkerreko porlanezko bidetik, beherantz eta gorantz, Herbosora heltzeko.

📍 **32,4 km.** Herbosoko baserrietatik igaro eta errepidetik jarraitu ordez, azken etxeen artean ezkerretik gora doan lurrezko bidetik animatuko gara, El Sucesora eramango gaituen errepideekin topo egin arte (34,4 km). Seinaleei men egin eta El Sucesorantz.

📍 **34,6 km.** Jaisten hasi eta berehala ezkerretik ateratzen den errepidea hartu behar dugu, baserrirantz, "PR BI-121 La Lama/Sopenako" noranzkoan. Hemen, Sucesoko aisia gunea, zezen plaza, eliza eta santutegia ezagutzeko aukera dugu. Ondoren, esandako bidetik jo, desbideraketak ahaztu eta gorantz leporaino, gero berriz beherantz hasi.

📍 **36,1 km.** Bidebanatzean, eskuinetik joango gara, beherantz nekazaritza pabiloi baten ondotik. Hurrengo baserri biak gainditu eta ezkerrean hartuko dugu, gora, jarraian ezkerrean berriz, gorantz, etxadira heldu arte. Hau bidetik igaro, basotik igo eta arineketa amilduko gara Turtziozera lur, porlan eta asfaltoko bidetik (41,5 km).

Ranero menditik Armañongo Parke Naturala (Jorrios/Armañon mendiak, Ordunte mendizerra, Ranero eta parketxea behetik ikusita)

